

KOMUNIKAZIO-HURBILBIDEA
ETA
ATALASE MAILA
SUGESTOPEDIA



1 URTEA
2. zenb.
MAIATZA - ABUZTUA
350 pta. — 19 libera



euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria

ZUTABE

Zuzendaritza: Iñaki ARANBERRI
Erramun BAXOK
Pello ESNAL
Gurutz LARRAÑAGA
Joxe LIZARRALDE
Joxe Joan G. DE TXABARRI
Boni URKIZU

Koordinatzailea: Imanol IRIZAR

**Frantserako eta
ingelesarako itzulpenak:** Juan Martin ALEGRIA

Idaskaritza - Harpidetzak: HABE
ZUTABE aldizkaria
Andia, 13 - 6.
Donostia — Tel.: (943) 42 91 20

1983rako prezioak: Ale bakoitza: 350 pta. edo 19 F.F.
Harpidetza: 900 pta. edo 50 F.F.

AURKIBIDEA

● Sarrera	3
------------------	---

GAI MONOGRAFIKOA: KOMUNIKAZIO-HURBILBIDEA

● Sarrera	7
● Komunikazio-joerak hizkuntz irakaskuntzan (HABE. Euskalduntze-saila)	10
● Komunikazio-hurbilbidea: teoritik praktikanantz (Xixa Gardner) ...	18

GAI MONOGRAFIKOA: ATALASE MAILA

● Atalase Maila (Joxe Lizarralde eta Pello Esnal)	35
----------------------------------------------------------	----

EXPERIENTZIAK

● Goi mailetarako ikasgai bat (Hasier Etxebarria, Anjel Valdes) ...	65
● 1982-1983 ikasturtean zehar Goierriko Euskal Eskolaren esperientzia (Dionisio Amundarain)	71

ITZULPENAK ETA LANKIDETZAK

● Bigarren hizkuntza ikasteko estrategia (Andrew D. Cohen)	83
● Sugestopedia (Joxe Joan G. de Txabarri)	90
● Ikaskuntza autozuzendua eta beharrak kontutan hartzea (Henri Holec)	102
● Hizkuntz laborategien ingurutik (Patxi Ezkiaga)	112
● «El vasco de hoy» metodoa. Ohar batzuk Joxe Joan G. de Txabarri'k aldizkari hontan idatzitako txostena dala ta (J. Basterretxea «Oskilaso»)	122

GURE MUNDUTXOA

● Kataluniera ikastaroak helduentzat, Generalitatearen babesean (Carmen Corominas)	133
● Euskaltzaindiaren Oinarrizko Euskararako Batzordea (Imanol Unzu-zurrungaga)	135
● Gramatika eta hizkuntz irakaskuntza (Joxe Lizarralde)	136
● Bergarako soziolinguistikari buruzko jardunaldiak (Boni Urkizu) ...	140

● GAL inkesta eta euskalduntze-alfabetatze lanak (Joxe Joan G. de Txabarri)	143
● Euskal Telebista, euskara eta euskararen irakaskuntza (Luis Alberto Aranberri)	145
● ZUTABE aldizkariari, harrera ona (Zuzendaritza)	147
● IKUSKA 15 (Joan Migel Gutierrez)	148
● «Prentsa eskolan» Synposiuma (Felix Ibargutxi)	150
● Ingeles irakasleentzat ikastaroak (Lakunza Akademia)	151
● E.G.A.rako homologazio eta onespen-aitormenak (Gurutz Larrañaga)	152

LIBURUAK ETA ALDIZKARIAK

● Liburuak	
BEST, J. W.: Cómo investigar en educación (J. J. G. de Txabarri) ...	159
CARE, J. M.; DEBYSER, F.: Jeu langage et créativité (S. Arzelus)	159
DONDIS, D. A.: La sintaxis de la imagen (E. Larrarte)	160
ELKARLANEAN: Questions-responses sur l'audiovisual à l'ècole (J. M. Gutierrez)	161
HOLEC, H.: Autonomie et apprentissage des langues étrangères (P. Esnal)	162
LOWE, J.: La educación de adultos (I. Aranberri)	162
MOIRAND, S.: Enseigner a communiquer en langues étrangères (E. Baxok)	164
TRIM, J. L. M. eta beste: Programmes «Langues vivantes» (1971-1981) (E. Baxok)	165
VALLVERDU, F.: El conflicto lingüístico en Cataluña: Historia y presente (I. Irizar)	165
Liburu zerrenda	166
● Aldizkariak	
«Infancia y aprendizaje» aldizkaria (J. J. G. de Txabarri)	168
Aldizkari zerrenda	170

SARRERA

ZUTABE aldizkariaren bigarren zenbakia da eskuartean duzun hau. Lehenengoaren berrera ezin hobeak zinez poztu gaitu eta aurrera jarraitzeko xedeak sendotu dizkigu.

Hona hemen bigarren ale honen edukia sailez sail.

Hizkuntz irakaskuntzaren arloan berebiziko gaurkotasuna duten bi gai dakartzagu oraingo «Gai Monografiko»ra: Komunikazio-burbilbidea eta Atalase Maila.

Nabiz eta bi gai berezi bezala aztertzen ditugun, biak iturri berekoak dira. Hain zuzen ere, Europako Kontseiluaren babesean orain dela hamarren bat urte sortu zen «Langues Vivantes» proiektuaren oinarrian dauden bi gai dira.

Komunikazio-burbilbidea hizkuntz irakaskuntzaren metodologian kokatzen da. Gai honi bi artikulu eskaini dizkiogu: HABEko Euskalduntze-Sailak ikuspegi teoriko batetik idatzitako «Komunikazio-joerak hizkuntz irakaskuntzan», eta Xixa Gardnerren «Komunikazio-burbilbidea: teoritik praktikarantz» artikulua, exenplu praktikoz horniturik dagoena.

«Atalase Maila» izeneko lanean, maila honen definitzeari ekiten diote Joxe Lizarralde eta Pello Esnalek, euskarari aplikatzeko lehen urratsak ematen dituztelarik.

Bi «experiencia» aberats ditugu izen honetako sailean. Hasier Etxebarria eta Anjel Valdesek goi-mailetarako proposatzen duten ikasgai-eredua, eta Dionisio Amundarainek Goiberriko Euskal Eskolan 1982-83. ikasturtean zehar izan duten esperientziaz egiten duen azalpena.

Ugaria gertatu zaigu «Itzulpenak eta Lankidetzak» saila. Lehenik, Andrew D. Cohen bigarren hizkuntza ikasteko estrategiaz ari zaigu. Ondoren, Sugestopediaren oinarri teorikoak eta hizkuntz irakaskuntzarako inplikazioak aztertzen ditu Joxe Joan Txabarrik. Bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan ikasleen beharrik eta ikaskuntza autozuzenduak duen garrantziaz idaxten du Henri Holec-ek. Patxi Ezkiagak, berriz, hizkuntz laborategien gaiari heltzen dio. Eta, azkenik, «El vasco de hoy - metodoa» artikuluari, erantzun gisa, Jose Basterretxeak (Oskillasok) egiten dion ohar-erantzuna.

Oraingoan ere berri eta gogoeta ugari dugu «Gure Mundutxo»an, hala nola, kataluniera-ikastaroak helduentzat, Euskaltzaindiaren Oinarrizko Euskararako Bartzordea, Bergarako Soziolinguistikari buruzko Jardunaldiak, GAL inkesta, Euskal Telebista eta euskararen irakaskuntza, Ikuska 15, EGA, etab.

Bukatzeko, «Liburuak eta Aldizkariak» sailean, hainbat liburu eta aldizkariaren laburpen, kritika eta aipamenak irakur daitezke.